



IGARTUBEITI, BASERRI MUSEO INTERESGARRIA

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserri museoa bisitatuz gero, XVI. eta XVII. mendeetako baserritarrak nola bizi ziren jakin daiteke. Hiru gune nagusi ditu, baserria, interpretazio zentroa eta baratzea, eta dolarea da haren bihotza. Urrian, Sagardo Astea, urtero martxan jartzen dute.

Igartubeiti baserriaren egitura dolarean dago oinarrituta. Lehenik dolarea eraiki baitzuten, eta ondoren baserria, haren inguruan. XVI. mendekoa da Igartubeiti baserria, eta 2001az geroztik museo baten zeregina betetzen du, XVI-XVII. mendeetako baserrietan nola bizi ziren erakusteko asmoz.

Dolarea baserriaren erdigunean dago, sagardoa oso garrantzitsua baitzen garai hartako herritarrentzat, eta Igartubeiti baserriaren inguruan sagar ugari baitzegoen. Igartubeitik bezala, garai hartako baserri guztiek zuten dolare bat. Baserri guztietan egiten zuten

sagardoa. Urtean behin egiten zuten, eta urte osorako gordetzen zuten, haien zati sagardoa elikagai bat baitzen.

Igartubeiti baserrian familia bat bizi izan zen 90eko hamarkadara arte. Eraikina Gipuzkoako Foru Aldundiari saldu zioten, aldundiak zaharberritu egin zuen, eta museo bat eraiki zuen baserri horretan oinarrituta. Dolarea ere berritu egin zuten, eta, zaharberritze lanak amaituta, 2001ean inauguratu zuten Igartubeiti baserri museoa.

Bisita gidatu baten bidez, baserriek XVI. mendean zein egitura zuten jakin daiteke. Logelak, sukaldea, ukuilua,

upategia, ganbara eta baserriko gaineko txokoak nolakoak ziren ikus daiteke, eta garai hartako familien bizimoduaren nondik norakoen berri jakin daiteke.


Urte batzuk geroago, Gipuzkoako Foru Aldundiak Igartubeiti baserriaren inguruko lurak erosi zituen, eta interpretazio zentroa zabaldu zuen baserri hurbil, ehun bat metrora, eta 2007an inauguratu zuten.

Interpretazio zentroan, baserriko bizimoduaren inguruko tailerrak eta jarduerak antolatzen dituzte, hurrentzat, gazteentzat eta helduentzat. Hala, ber, ikus-entzunezko emankizunak



Ezkerreko irudian, Igartubeiti baserri museoan dagoen dolarea; goian, Sagardo Astea egiten den zanpatze eta krikokeka saio bat, eta, behean, museoko gela bat.

JAVIER LARREA - MAIALEN IGARTUE - IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA



egiten dituzte. Baserriaren historia eta garai hartako baserrien inguruko beste hainbat kontu azaltzen dituzte, besteak beste, familia egituren, sinesmenen eta iturri ekonomikoen ingurukoak. Bestalde, baratzea ere badauka Igartubeiti baserri museoak. Baserriaren kanpoaldean lursail txiki bat dute, barazkiak landatzeko. Haurrentzako tailerrak antolatzen dituzte baratzean,

Igartubeiti baserri museoak bisita gidatuak eta jarduera ugari antolatzen ditu urte osoan

baserriko lana ezagutarazteko. Igartubeiti baserri museoan sagarrondoei eta dolareko sagarri buruzko informazioa bil

daiteke, eta, museoko dendan, sagardo, sagar produktuak eta liburuak ere eskura daitezke. www.igartubeitibaserria.eus helbidean lor daiteke informazio gehiago.

Sagardo Astea

Igartubeitin dagoen dolarea urtero martxan jartzen dute, urrian antolatzen duten Sagardo Astea. Museoko ekintzarik esanguratsuen da. 2016an, urriaren 5etik 14ra izan da Sagardo Astea, eta, urtero bezala, dolarea martxan jartzeaz gain, garai batean sagarra nola zanpatzen zuten erakutsi zuten, kirikoketa saioak ere egin zituzten, eta sukaldaritza tailerrak ere bai. Sagardo Astea Igartubeiti baserri museora etortzen direnek horko dolarea, XVI. mendeko zurezko egitura, indarrez nola bihurritzen duten bertatik bertara ikusteko aukera izaten dute, sagarraren usaina eta lehen muztioaren lurruna sentitzen duten bitartean. Ikuskituz ederra izaten da, zinez.

Beste hainbat ekitaldi eta jarduera ere izan ziren Igartubeitik antolatutako azken Sagardo Astea. Besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako 15. Sagardo Lehiaketako irabazleei sariak eta diplomak eman zizkieten, Urretxu-Zumarragako Karmakros antzerki taldekoek XVII. mende hasieran baserrian bizi izandako Kortabarria familiaren gaineko antzezpena egin zuten, sagar erakusketa bat izan zen, Sagardo Astea Argazki Lehiaketa eta Sagar eta Sagardo Errezeten Lehiaketak egin ziren, eta hainbat sagar motarekin egindako sagar dultzeen dastaketa ere egin zen.